

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ehun lagun inguruk parte hartu dute 'Eleaniztasuna: bertatik mundura' jardunaldian

Solana kontseilariak ikastetxeak lantzen ari diren proiektuak partekatzearen garrantzia azpimarratu du

Larunbata, 2018.eko urriak 6

Nafarroako ikastetxeetan hizkuntzen irakaskuntzaren inguruan dauden proiektuak elkarbanatzeko

[jardunaldiak](#) egin dituzte gaur Musikaren hirian, Hezkuntza departamentuak antolatuta. Hezkuntza kontseilari Maria Solanak parte hartu du irekieran.



Solana kontseilaria jardunaldien une batean.

Nola lortu gure ikasleek gaitasuna lortzea hainbat hizkuntzatan, eta nola lortu bertako hizkuntzetatik abiatuta, pertsona eleanitzak? Bi abiapuntu horiek hizpide izan dituzte gaurko saioan, eta euren esperientziak elkarbanatzeko eta kontrastatzeko aukera izan dute Altsasu, Zizur, Buztintxuri, Luzaide, Lizarra, Doña Mayor eta EIBZ ikastetxeek. HUHEZI-Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ahozko hizkuntzaren lanketan aditua den Karmele Perez ikastetxe hizkuntza proiektuen inguruan aritu da saioaren hasieran.

Kontseilariak azpimarratu duenez, hezkuntza departamentuak hainbat jardunaldi, ikastaro eta hitzaldi antolatu ditu aurten gaiak eskatzen duen konplexutasunari erantzun nahian, eta adierazi duenez, gaurko saioa "ahalegin jarraitu horren beste mugarri bat da, oraingoan gainera gure ikastetxeetan garatzen ari diren proiektuak eta esperientziak entzuteko ezagutzera emateko".

"Hezkuntza departamentuaren nahia da hizkuntzen inguruko kezka etengabea izatea, eta gogoetak etenik ez izatea. Helburua garbi baitugu: gure hizkuntzak errespetatu eta baliatu ez ezik atzerriko hizkuntzetan gaitutako ikasleak lortzea", gehitu du Solanak.

Gaurko saioan ehun lagun inguruk parte hartu dute, goiz osoan, esperientziak ezagutu eta ideiak elkarbanatzen. Nafarroako hezkuntza sistemak barne hartzen dituen hizkuntza eredu guztietako ikastetxeetako ordezkariak bildu dira lehenengoz.

Galería de fotos



Jardunaldirako irakaslea.